

Donostian, 2016ko otsailaren 19an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINAK AURKEZTEKO BIDEOEN AZPITITULUAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2016ko otsailaren 15ean izan zuen bileran herritar merezimenduaren dominak aurkezteko bideoen azpigituluei buruz egindako INTERPELAZIOAren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Herritar merezimenduaren dominak emateko ekitaldian, bideoen bidez aurkeztu zituzten izendatuak, osoko bilkuren aretoan jarritako pantaila handi batean. Egun hartan, jende ugari eta askotarikoa zegoen aretoan. Bideoetan, elkarrizketatuek gaztelaniaz hitz egiten bazuten, euskarazko azpigituluak agertzen ziren irudiarekin batera. Baina euskaraz hitz egiten bazuten, ez zegoen gaztelaniazko azpigitulurik.

Mundu guztiak dauka nahi duen hizkuntzan hitz egiteko eskubide baldintzarik gabea. Ondo iruditzen zaigu gaztelaniaz esandakoak euskaraz ematea azpigituluetan, bideoen edukia jende gehiagorengana iristeko eta euskararen erabilera normalizatzeko. Baina ez dugu ulertzen zergatik ez den gauza berbera egin euskaraz esandakoekin, gaztelaniazko azpigituluak jarrita.

Otsailaren 15eko batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zigun oker bat izan zela, arreta faltaren ondorio, eta, oro har, asmoa dela bi hizkuntzetan jartzea azpigituluak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala modua Udalak berak edo Udalaren izenean sortutako ikus-entzunezkoak bi hizkuntzetan egongo direla bermatzeko, Udalak onartutako hizkuntza politikak ahalbidetzen eta gomendatzen duenarekin bat.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

irabazi
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.